

## AZAROAK 25, NAZIOARTEKO EGUNA emakumeenganako indarkeriaren aurkako



### EGUNA ARANGUREN IBARREAN

Emakumeenganako indarkeria desagertzeko Nazioarteko Eguna dela eta, Aranguren Ibarreko Udalak auzokide guztiak ondorengo jardueretan parte hartzera gonbidatzen ditu:

→ **AZAROAK 24, OSTIRALA, 18:30EAN**  
**ARANGUREN IBARREKO KULTUR ETXEKO**  
**AUDITORIOAN**

**ARANGUREN IBARREKO TALDEAK EMAKUME-  
ENGANAKO INDARKERIAREN DESAGERPENE-  
RAKO ELKARTURIK:**

**Aranguren Ibarreko Udala:** A 25eko adierazpenaren irakurketa: "Genero indarkeriaren aurka egiten duten Udalak".

**Aranguren Ibarreko Lino Otano Musika Eskola:** Combo taldeak.

**Aranguren Ibarreko dantzari ohiak.** Emakumeenganako bortizkeriaren kontrako kontakizunen lehiaketako **kontakizun irabazleen irakurketa** eta sarien banaketa.

**Edurne Elgea:** antzeppen musikala.

**Nuria:** emanaldi musikalak.

**Kukumix teatro:** genero indarkeriari buruzko testu antzeztuak.

**Aldapa Elkarte:** dantza eta emanaldi musikalak.

**La Ortiga t.d.s.:** antzerki saioa.

**Aranguren TB:** genero indarkeriari buruzko bideoen emanaldia.

**M<sup>a</sup> Eugenia San Martín eta Pablo Planillo:** musika emanaldiak.

*Gazte eta helduentzako jarduera.  
Gonbidapenak hasiera baino ordu erdi bat lehenago jaso ahalgo dira, pertsona bakoitzeko bat eta iristeko hurrenkeraren arabera.*

Erakustaldia bukatzean Kultur Etxeko atondoan mokadutxoak eskainiko zaie parte hartzaile eta ikusleei. Era berean, A25eko oroigarri bat ere emango zaie opari.

**HAURTZAINDEGI ZERBITZUA:** Azaroaren 22aren aurretik izena emanda. Gizarte Zerbitzura deituaz 948 151 382.



### ARANGUREN IBARREKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUA

Mutiloa plaza z/g, Mutiloa  
(Aranguren Ibarra)  
ORDUTEGIA: astelehenetik ostiralera,  
9:00etatik 14:00etara. - Telefonoa: 948 151 382

## AZAROAK 24, OSTIRALA 12:00ETAN MUTILOAKO PLAZAN AUZOKIDEEN ELKARRETARATZEA



**E**raso sexitaren bat pairatu duten ala pairatzen duten emakumeenganako elkartasunez eta genero indarkeriaren GAITZESPENAREN ADIERAZLE MINUTU BATEKO ISILUNEA egingo da. PARTE HARTZAILEEK EGUNAREN OROITZAPENEZKO KAMISETA BAT JASOKO DUTE.

# ARANGUREN IBARRAK **EZETZ** DIO

**ARANGUREN IBARREKO UDALAK PERTSONA GUZTIEN BERDINTASUNA SUSTATZEN ETA DEFENDATZEN DU**, eta oso bereziki gaitzesten ditu emakumeenganako indarkeria adierazpen guztiak, gure gizartean existitzen den genero bereizketa eta berdintasun ezaren adierazle direnak. Era berean, duen erantzukizun esparrutik indarkeria honen desagertzeko lan egiten jarraitzeko konpromisoa erakusten du eta egun hau dela eta antolatzen diren gaitzespen eta salaketa ekitaldi guztiekin bat egiten du.

## AZAROAK 25, LARUNBATA



20:00ETAN IRUÑEAKO GAZTELU PLAZAN  
EMAKUMEENGANAKO INDARKERIA  
GAITZESTEKO MANIFESTAZIOA

**GENERO INDARKERIARI BURUZKO INFORMAZIO ETA AHOLKULARITZA JURIDIKORAKO ZERBITZUA**

Larrialdiak 112 | Laguntza eta informaziorako telefonoa 848 42 15 76 (NBI) | Biktimei arreta 016  
OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUA ARANGUREN IBARREKO UDALA ☎948 15 13 82

## 👉 Familia ikasketarako tailerra



### 1 GURE SEME-ALABEKIN BATERA ADIMEN-EMOZIONALA LANTZEN

- Aitatasun eta amatasun rolei dagozkien esperientziei buruzko bilgunea sortzea da helburua.
- Emozioak ezagutzeko helburua du, beren ezaugarriak eta duten eragina.
- Beren seme-alabei haien emozioak identifikatu eta horiek kudeatu ahal izateko laguntza eskaintzeko gaituko dira gurasoak.
- Era berean, gurasoen artean hezkuntza positiboa sustatuko da.

**2 eta 15 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoentzat (lehenetasunez).**

**Datak:** azaroak 23 eta 30, abenduak 14 eta 19.  
**Ordutegia:** 17:00etatik 18:30era.  
**Lekua:** San Pedro Ikastetxe Publikoa.

**Emaleak:** Ilundain Fundazioko hezitzaile espezializatuak.  
**Tailerraren prezioa:** 5 € /pertsonako. Doakoa Guraso Elkarteko bazkideentzat.

### 2 LOTURAK INDARTU HAZIERA GARAIAN



- Gurasoengan haurren portaeran eragiten duten faktoreen ezagutza sustatu nahi da, baita lotura-ziurraren oinarriak ezagutarazi ere.
- Aldi berean, gurasoei familia komunikazio eraginkor batetarako gaitasunak eskaini nahi zaizkie, horrela eguneroko gatazkei erantzuteko eta aurre egiteko estrategiak izan ditzaten.

**2 eta 10 urte bitarteko gurasoentzat (lehenetasunez).**

**Datak:** urtarrilak 18 eta 25, otsailak 1 eta 8.  
**Ordutegia:** 17:00etatik 18:30era.  
**Lekua:** San Pedro Ikastetxe Publikoa.  
**Emaleak:** Ilundain Fundazioko hezitzaile espezializatuak.  
**Tailerraren prezioa:** 5 € /pertsonako. Doakoa GURASO ELKARTEKO bazkideentzat.

**DOAKO HAURTZAINDEGI ZERBITZUA EGONGO DA**

**IZEN-EMATEAK:** Araroak 20, astelehena, eta 21, asteartea. 012aren bidez, 8:00etatik 19:00etara.

**KUOTA ORDAINKETA:** SMS bidez tailerrean onartuta zauden edo ez konfirmatuko zaizu eta baita ordainketa nola egin ere.



# EGUBERRITAKO TAILERRAK

## 4 ETA 12 URTE BITARTEKO ERROLDATUTAKO HAURRENTZAT

### “ARTISTA TXIKIAK” TAILERRA



**Eguberritako oportunitate zuregan dagoen artista ezagutu nahi duzu.**

- Jarduera sortzaile eta oso dibertigarri pila batean parte hartu eta lagun mordoa ezagutu nahi duzu?
- Eguberritako tailerretan zure zain gaituz. Diseinatzaile, margolari, eskultore, sukaldari... izango gara, elkarrekin sortzeko, barre egiteko eta jolasteko.

**Parte hartu nahi duzu?**

**4 eta 7 urte bitarteko adin taldea:** gehienez 50 pertsona.  
**Aukeran dauden hizkuntzak:** gaztelania edo euskara.

**8 eta 12 urte bitarteko adin taldea:** gehienez 50 pertsona.

Talde honek Errege Magoen Aranguren Ibarreko Kabalkadari laguntzeko mozorroak egingo ditu.

**Aukeran dauden hizkuntzak:** gaztelania edo euskara.

#### Datak:

» 2017ko abendua: asteartea 26, asteazkena 27, osteguna 28 eta ostirala 29.

» 2018ko urtarrila: asteartea 2, asteazkena 3, osteguna 4 eta ostirala 5.

**Ordutegia:** 9:00etatik 14:00etara.

**Lekua:** San Pedro Ikatetxe Publikoa (Mutiloa).

**IZEN EMATEAK:** azaroak 27, astelehena, eta 28, asteartea, 012aren bidez, 8:00etatik 19:00etara.

**Prezioa:** 40 €/ haur batengatik.

36 € bi haurren izena emateagatik.

32 € hiru haurren izena emateagatik.

28 € lau edo haur gehiagoren izena emateagatik.

**Oharra:** Deia egiten duenak familia unitate bereko kideen izenak soilik eman ahalko ditu.

**ZOKKETA** (plaza kopurua gainditzen baldin bada) eta **ONARTUEN ZERRENDA:**

**Asteazkena, azaroak 29, 12:00etan:**

adin talde bakoitzerako plazen zokketa egingen da Aranguren Ibarreko Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan.

**Ostirala, abenduak 1:** mezua bidaliko zaio **012**aren bidez familiari adin txikikoa Eguberritako tailerretan onartuta dagoen ala ez jakinarazteko. Telefono mugikorrik ez dutenek Oinarritzko Zerbitzura joan ala deitu beharko dute data horretatik aurrera, onartuta dauden edo ez jakiteko.

**ONARTUTAKOEN ORDAINKETAK** (izen-ematearen gauzatzea):

**Abenduak 12 eta 13.**

Deitu **012**ra 8:00etatik 19:00etara (Visarekin ordaintzeko).

Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen kontuan dirua sartuz:  
RURAL KUTXA: ES 34 3008 0208 05 2702637428.

**TAILERRETAN BAJA IZATEKO ARRAZOIAK:**

Dagokion epean matrikula ez gauzatzea (tailerra ordaintzea).

*Behin Eguberritako Tailerra hasita, Oinarritzko Gizarte Zerbitzuari garaiz ez jakinarazitako faltak (948 151382 telefonoan, 9:00etatik 14:00etara) tailerretan baja izango dira eta ez da ordaindutako dirua itzuliko.*

Familiaren bat matrikula ordaindu ondoren baja baldin bada edo Udalarena ez den arrazoiren baten batengatik tailerrera joaten ez bada, ez zaio ordaindutako kopurua itzuliko (ezinbestek bultzatutako arrazoiak izan ezik, adibidez, adin txikikoaren edo gurasoen ospitaleratze arrazoiengatik).

## »IKASLEENTZAKO LAGUNTZEN DEIALDIAK:



### 2017-18AN HIZKUNTZAREKIN HARREMANA DUEN ELKARTRUKE EDO ESKOLA JARDUERAREN BATEAN PARTE HARTU DUTENENTZAT

Nafarroako ikastetxeetan DBH 1 eta erdi mailako ikasketak bitartekoak (batxilergoa edo L.H.-Ko erdi mailako gradua) egiten dituzten ikasleentzat. Deialdi honen helburua 2017-2018 ikasturtean zehar DBHko ikasleei elkartrukeetarako garraiorako eta bertako jardueretarako laguntzak ematea da.

**ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA 2018KO IRAILAREN 7AN, OSTIRALEAN, BUKATZEN DA.**



### 2017-2018 IKASTURTEAN HAPPY SCHOOL PROGRAMAKO PARTE-HARTZAILEAK

2017-2018 Ikasturtean zehar **Happy School** programan parte hartzen ari diren ikasle guztiak diru-laguntza eskaera aurkeztu ahalko dute Aranguren Ibarreko Udaleko erregistro orokorrean (deialdiko oinarriak udaleko webgunetik jaitsi ala udaletxean bertan jaso daitezke).

**LAGUNTZA HAU ESKATZEN DUTEN IKASLEEK IBARREAN ERROLDATUTA EGON BEHARKO DUTE.**

**ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA 2018KO EKAINAREN 8AN BUKATZEN DA, OSTIRALAREKIN.**

## ➔ FORMAZIOA:

### ENPLEGUA BILATZEKO ORIENTABIDEAK GAZTEENTZAT



**18 eta 25 urte bitartean badituzu, langabezian baldin bazaude eta lana bilatzeko gogoz baldin bazaude, formazio honen bidez horretarako orientabideak eskaintzen dizkizugu. Lana aurkitzeko tresna eta sistema nagusiak ezagutuko dituzu.**

**Datak:** 2018ko urtarrilak 15, 16 eta 17.

**Ordutegia:** 9:00etatik 11:00etara.

**Lekua:** Aranetxea, Aranguren Ibarreko Gazte Lekua.

**Plazak:** gehienez 16 pertsona.

**Izen-emateak:** Aranguren Ibarreko Oinarritzko Gizarte Zerbitzua, Mutiloa plaza z/g.

**Telefonoa:** 948 151382.

## LAGUNTZA JURIDIKORAKO DOAKO ZERBITZUA



**Urriaren aurreko hilabeteetan eskaintako laguntza juridikorako doako zerbitzua berrabiarazi dugu.**

Zerbitzu hau Aranguren Ibarreko auzokideentzako da eta ondorengo arloei buruzko laguntza eta orientabideak eskaintzen zaizkie: kontsumoa, telekomunikazioak, horniketak, erosketa bermeak, ondasun eta zerbitzuen salerosketa, ibilgailuen konponketa, turismoa, alokairuak...

**INFORMAZIO GEHIAGORAKO EDOTA HITZ ORDUA HARTZEKO, DEITU OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUETARA: 948 15 13 82**

# Zure interesekoa izan daiteke...



## ➤ ELIKAGAI BANKUKO BOLUNTARIOAK

Aranguren Ibarrek zailtasun ekonomiko eta sozialean dauden familiei oinarrizko produktuak banatzen dizkien elikagai bankua dauka.

Baliabide hau garatu ahal izateko, nahitaezkoa da **borondatez lan egiten duten pertsonen** lana. Pertsona horiek beren denborarekin elikagai horien antolaketa, jasotzea eta banaketa posible egiten dute.

*Horregatik, baliabide honetan boluntario gisa parte hartzera animatu nahi zaituztegu.*

Zure denbora Elikagaien Bankuari eskaini nahi badiozu edota informazio gehiago jaso nahi baduzu, jarri zaituzte harremanetan Aranguren Ibarreko udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin, Mutiloa plaza z/g-an edo 948 151382 telefonoan.

## ➤ ERRENTA BERMATUARI BURUZKO INFORMAZIOA

**Errenta Bermatua hileroko laguntza ekonomiko bat da, bestelako edozein baliabide edo prestazioren osagarria dena.**

Haien oinarrizko beharrei aurre egiteko sarrera nahikoak ez dituzten pertsonentzako da, beti ere ondorengo baldintzak betetzen badituzte:

- 18 urtetik gorakoa izatea, edo adingabe emantzipatua.  
18 urtetik 24 urtera bitartekoa izanez gero, ardurapean adingaberik izan gabe, eskatzaileak gutxienez bi urte emanak izan behar ditu beregain bizitzen, errenta bermaturako eskaera egin aurretik.
- Nafarroako Foru Komunitatean bizitzea, eskaera aurkezten den data baino bi urte lehenagotik gutxienez, edo urtebete, familia-unitatean adingabeak, mendekoak edo %65etik gorako desgaitasuna duten pertsonak badaude.
- Oinarrizko beharrei aurre egiteko adina baliabiderik ez izatea. Baliabide-gabezia hori dagoela ulertuko da eskatzailearen eta -kasua bada- bere familia-unitateko gainerako kideen ahalmen ekonomikoa apalagoa denean, osotara, unitate horri foru lege honetan araututakoaren arabera dagokiokeen errenta bermatuaren zenbatekoa baino.
- Edozein administrazio publiko eskuduni alde aurretik eskatu izana zuzenbideari jarraikiz legozkiokeen prestazioak, pentsioak edo sorospenak, edozein motatakoak; baita mantenu eta/edo konpentsazioko pentsioak ezarri eta ordaintzeko zuzenbide-akzioak baliatzea ere.

## ➤ MENDEKOTASUN EGOERAREN BALORAZIOA

**Balorazio hau nolabaiteko mendekotasun maila izan dezakeen edozein pertsonari dago zuzendua, adin mugarik gabe.**

☞ Pertsona batzuek bizi duten egoera iraunkorra da mendekotasun egoera. Adinagatik, gaixotasunagatik edo gai-gabezia batengatik, edo autonomia fisiko, mental, intelektual edo sentsorial ezagatik edo galtzeagatik, eta horren ondorioz beste pertsona baten edo batzuen arreta edo laguntza garrantzitsua behar dutenak eguneroko bizimoduko oinarrizko jarduerak egiteko; edo, adimen-urritasuna edo buruko gaixotasuna izateagatik beste laguntza batzuk behar dituztenak euren autonomia pertsonalerako.

☞ Mendekotasunaren ziurtagiria dokumentu pertsonala da, Espainiako Estatu osoan balio duena. Ziurtagiri horrek mendekotasun maila egiaztatzen du eta jabeari autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko Legeak aurreikusitako zerbitzu eta prestazioak eskuratzeko aukera ematen dio.

☞ Pertsonen autonomia maila, eguneroko bizitzako oinarrizko lanak egiteko euren gaitasuna, baloratzeko irizpide objektiboak zehazten dituen baremo bat da; baita laguntza edo ikuskapen beharra ere. 3 urtetik beherakoentzat, balorazio eskala berezia dago.

### **MENDEKOTASUNAREN BALORAZIOA ESKATZEKO BALDINTZAK HURRENGOAK DIRA:**

- Gaur egun Nafarroan bizitzea eta espainiar lurraldean bizi izatea bost urtez, horietako bi eskaera aurkeztu baino lehenagokoak izan behar dutelarik.
- Bost urtetik beherako kasuan, bizilekuaren aldia haien zaintza duten pertsonen eskatuko zaie.

**Baliabide hauei buruzko informazio gehiagorako, Oinarrizko Gizarte Zerbitzura deitu dezakezu 948 151382 9:00etatik 14:00etara**